

## solasean



**Izen-abizenak:** Gorka Beobide Aranguren

**Jaioterria:** Azpeitian, 1977ko abenduaren 8an.

Gaztetatik eraikuntza eta saneamendu enpresan lanean aritua, langabezia aprobetxatu zuen bizitzan gustura aritzen zen horretan lanean aritzeko ikasketak osatzeko: Mendi gidaritza. Mendi ertaineko kirol teknikaria, Lautadan eta Laudion Oxigenoa euskarari bezalako egitasmoetan ikasketa amaierako jarduerak osatuta, 2014tik bizi da Logroñon antzeko egitasmoak martxan jartzen Arabako Errioxan.

Gaur egun, Mintzalagun eta Gurasolagun egitasmoen koordinatzaile, euskara eta pilota uztartuta umeei pelota irakasten... Aurretik *Kalean bizi-bizi* proiektuko arduradun, laster Korrikako arduradun...



### **Nola, non jaso zenuen euskara? Noiz hasi zinen euskara maitatzen?**

Ama hizkuntza dut euskara eta euskaraz bizi naiz. Debekatu eta galarazi izanak euskarari erabileran eragin dion galera ikusteak min egiten dit, eta suspertze lanetan zeregin handia dagoela ikusita aletxo jarri nahi nuke nagoen lekuan nagoela ere.

“Me duele ver las prohibiciones que ha tenido el euskera y las dificultades que se nos imponen, todavía hoy en día, a los/as vascoparlantes, por lo que me gustaría aportar mi granito de arena en ese trabajo de recuperación”

### **Zein egoeratan ikusten duzu euskara Arabako Errioxan?**

Sekulako lana egin da Arabako Errioxan azken 2-3 hamarkadetan ezagutzari dagokionez, Tiki-ttaka, Ika, ikastolak eta kultur elkarteei esker, baina baratzean bezala lan nekezaren ostean uzta biltzen jakin behar da, bestela usteldu egiten da,

bidu eta probestu behar da, gozatu. Hau da, ikasi duzun hori, dakizun hori erabili: horrela mantenduko da euskara bizirik.

### **Zein dira hutsune nagusiak?**

Erabileran da hutsune nagusia, lotsagatik, ohitura ezagatik, kontzientzia ezagatik, oso gutxi erabiltzen da euskara.

### **Zer egingo zenuke euskararen egoera hobetzeko?**

Aldeko diskriminazioaren aldekoa naiz, baina hasteko legea betearaziko nuke: administrazio eta arlo publikoan langileria behartu euskara erabiltzera. Bestalde, euskaraldia bezalako ekimenek horretan lagun dezakete baina ezin da hamaika egunetara mugatu.

### **Zer dira mintzalagun eta gurasolagun bi hitzetan eta zer ekarri diote bertako euskaltzaletasunari?**

Mintzalagun ekimenean hizkuntza ohiturak aldatzea da xedea, zailtasunak

dituzten euskal hiztunek euren jarioa lantzea, erosotasuna bilatzea euskaraz aritzean. Gurasolagunean berdin, familiako hizkuntza ohituretan eragin, euskaraz ongi pasa, gozatu nahi da.

“El proyecto Mintzalagun tiene como objetivo que los participantes cojan la costumbre de hablar en euskera entre ellos/as, ayudar a los/as que tienen dificultades a obtener más fluidez, a sentirse cómodos/as al hablar en euskera”

### **Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?**

Galdu eta gero ohartzen gara galdu dugunaren balioaz. Teknologiai eta beste hizkuntzei eman diegun garrantziak itoko du gure hizkuntza eta orduan falta!

“Cuando perdemos algo es cuando nos hacemos conscientes de aquello que hemos perdido. La importancia que estamos dando a la tecnología y a otros idiomas ahogará nuestro idioma y entonces lo echaremos en falta”

### **Jende asko dago oraindik gure inguruan euskaraz jakin nahi lukeela esan baina ez dakiena: denbora falta, zaila da, diru asko da... Zer esango zenieke horiei?**

Gure oinordekoek egingo dute, uste du heldu askok eta zain geratzen gara. Bide okerra da.

“Ya lo hablarán nuestros hijos/as, piensan muchos; pero ha quedado claro que ese camino es erróneo. Tenemos que participar todos/as en este proceso niños/as, jóvenes y mayores. Al Everest también se asciende paso a paso, con pasos pequeños. Démoslos todos/as”

Aldatu jokabidea eta eragin, pauso txikiekin egiten da Everesteko igoera ere.

Denbora eta diru faltak lana eta dirua esan nahi dutenez, garbi dago administrazioari dagokion hizkuntza politikak norabidea aldatu behar duela.

Garrantzia handiagoa eman behar zaio gure altxor preziatuari. Euskarari

**El pasado 3 de diciembre, Día Internacional del Euskera, un grupo del euskaltegi preparó un programa especial en radio Rioja Alavesa. En dicho programa quisieron hacer un pequeño homenaje a todos los grupos y cantautores que han pasado por nuestra comarca. Desde Mantible también se nos ha ocurrido preguntar a algunos amigos sobre su grupo o cantautor favorito, y de paso que nos comente alguna cosilla sobre ellos.**

**Pasa den 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, euskaltegiko talde batek irratsaio berezia egin zuen Arabar Errioxako irrastian. Saio hartan gure eskualdetik pasa diren talde zein artistei omenalditxo egin zieten. Mantibleko kideok, ideia horrekin inspiraturik, hainbat laguni egin nahi izan diogu galdera: Zein da zure gogoko talde edota kantaria? Bide batez horiekin lotutako pasadizoren bat kontatzeko eskatu diegu.**

### ALICIA

Nire euskal musika talderik gustukoena Huntza da. Orain dela gutxi ezagutu dut lagun baten bidez eta hortik aurrera askotan entzuten dut. Letren esanahiaz aparte, gehien gustatzen zaidana sortzen dituzten melodia bereziak eta gogoraerazak eta horiek daukaten indarra dira.

Taldearen diska guztiak ditut eta oraindik ez ditut zuzenean ikusi, baina espero dut laster ikustea. Huntzaren nire abestirik gustukoena bi dira: alde batetik "Zer izan", bidaltzen duen mezuagatik, eta "Lasai, lasai", nahiz eta bere abestirik famatuena eta entzunena "aldapan gora" izan.

Mi grupo vasco favorito es "Huntza". Los he conocido hace muy poco, por medio de una amiga, y desde ahí en adelante los escucho con asiduidad. Aparte de las letras, lo que más me gusta es la melodía de sus canciones, la fuerza que tienen y



lo fácil que se recuerdan. Tengo todos los discos, y aunque todavía no los he visto en directo, espero hacerlo pronto. Mis canciones favoritas: "Que ser" y "tranquila, tranquila", aunque su canción más conocida es "Cuesta arriba".

### NAIARA

Gorka Urbizuk (BTX) hainbat musika proiektutan parte hartu du, eta horietako bat KATAMALO izan zen (2007-2011). Bertan, musika eta poesía nahasten zituzten persona taldea bildu zen (Gotzon Barandiaran, Itsaso Etxebeste, Nerea Urbizu, Alex Arregi, Aintzina Lekue eta Gorka Mugarza). Nire ustez, nahasketa hori zen taldea berezi egiten zuena, hain zuzen ere.

KATAMALO musika talde iragankorra izan arren, hitzek bizirik diraute. Abesti/poema bat? "Ez dezala mikrofonoak agindu".

Gorka Urbizu (Berri Txarrak) ha participado en varios proyectos musicales, y uno de ellos es KATAMALO (2007-2011). Fue un grupo formado por personas que mezclaban la poesía y la música. (Gotzon Barandiaran, Itsaso Etxebeste, Nerea



Urbizu, Alex Arregi, Aintzina Lekue eta Gorka Mugarza). A miparecer esa "mezcla" era la que hacía peculiar al grupo. Fue un grupo musical efímero, pero las letras de sus canciones siguen vivas. Una canción/poema? "Que no mande el micrófono".

### ALBERTO

Eh, Mertxe! Taldea izugarri atsegin dut; gainera bertakoak dira, Oiongoak, hain zuzen. Eman zituzten bi kontzertu ditut gogoan. Dantza egiteko beharra sentitu dut bi okasiotan. Roka gogoko izan ez arren, euren kontzerturen batera joatea gomendatzen dizuet, merezi du eta!

Eh, Mertxe me gusta bastante; además, son de nuestra zona, de Oyón concretamente. Recuerdo dos conciertos en los que estuve. No sé... en las dos ocasiones me transmitieron ganas de bailar. Aunque no os guste el rock os recomiendo que vayáis a algún concierto, merece la pena.



### AMAIA

Gozategi nire gustuko taldea da. Orain dela hamazazpi bat urte lagunak eta bikotearekin Euskal Herriko jairik jai joaten nintzenean, Gozategi modan zegoen, eta entzun bezain pronto, dantzatzen hasten ginen. Eta, orain, entzuten dudanean, oso oroitzapen politak ekartzen dizkit.

Gozategi es el grupo que me gusta. Hace unos diecisiete años, cuando iba de fiesta con lo/as amigo/as y compañero estaba de moda y tan pronto como lo escuchábamos empezábamos a bailar. Y ahora, cuando lo escucho me trae unos buenos recuerdos.

### VERONICA

Nire euskal talderik gustukoena Vendetta da, lehen ikastolan eta lagunekin askotan entzuten nuen. Gainera, nire herriko festetan (lekoran) jo zuten eta kontzertua asko gustatu zitzaidan. Egun hartan Peio, abeslariarekin, argazkia atera nuen. Nahiz eta taldea desegin den, oraindik ere entzuten dut, haien abestiak asko gustatzen zaizkit eta.

El grupo que más me gusta es Vendetta. Antes lo escuchaba mucho en la Ikastola o con los amigos y las amigas. Ahora, aunque el grupo se haya disuelto, lo sigo escuchando, ¡Me encantan sus canciones! Además tocaron en fiestas de mi pueblo (Yekora); el concierto me encanto y me saque una foto con Peio, el cantante.



### FERNANDO

Nire talderik gustukoena Autobus Magikoa da. Ez ditut zuzenean ikusi. Gehien gustatzen zaizkidanak hitzak eta eritmoa dira, batez ere. Lagun batzuen bitartez ezagutu nituen, duela hiruzpalau hilabete. Nire abestirik gustukoena "Pozaren Gailurra" da. Mi grupo favorito es Autobus Magikoa. No los he visto en directo. Lo que más me gusta son las letras y el ritmo de las canciones. Los conocí por medio de unos/as amigos/as, hace dos-tres meses. Mi canción favorita es "La cima de la felicidad".





### MAITE

Nire euskal talderik gustukoena Ze esatek! da. Batez ere gustatzen zait trikitixa jotzen dutelako. Modu bitxian ezagutu nuen taldea; txikitán Bianan tritixa jotzen ikasten nuen eta nire maisua Xabi Arakama zen; handik urte batzuetara Ze esatek! taldearen bideoklip batean ikusi nuen; sorpresa handia hartu nuen bera zelako talde horretako trikitilaria. Orduz geroztik entzuten dut eta gustuko dut.

Mi grupo favorito es Ze esatek!. Lo que más me gusta es que incluye la trikitixa en sus canciones. Conocí el grupo de una forma especial: de pequeña iba a Viana a clases de trikitixa y mi profesor era Xabi Arakama (hoy en día toca en Ze esatek!); de ahí a unos años por casualidad lo vi en un videoclip de este grupo, ¡me sorprendió muchísimo! Desde entonces escucho sus canciones y me encantan.



### PILI

Hogei urte nituela hasi nintzen lagunekin gauean ateratzen. Urte haietan herriz herri festa guztietan ibiltzen ginen berbenetan dantzan. Oso gogoko genuen DRINDOTS taldea, eta non ziren jakin bezain pronto, hara abiatzen ginen. Talde hau Lazkaon sortu zen, 1981ean. Ni Beasaindarra naiz, eta bi herriok Goierri daude, Gipuzkoan. Guretzat idoloak ziren. Hazi egin ginen beraiekin eta beren musikarekin. Gaur egun taldeak jarraitzen du jotake. Aupa DRINDOTS!

Cuando tenía 20 años fue cuando empecé a salir por la noche con las amigas. Por aquel entonces íbamos de pueblo en pueblo a todas las fiestas bailando en las verbenas. Nos gustaba mucho el grupo DRINDOTS y en el pueblo que sabíamos que estaba allí íbamos a oírles tocar, cantar y bailar. Es un grupo que nació en el año 1981 y los integrantes son de Lazkao, como yo soy de Beasain, ambos pueblos del Goierri en Guipuzkoa, pues eran para nosotros unos dioses. Músicos a nuestro alcance. Crecimos con ellos y su música. Hoy día siguen tocando en conciertos y verbenas. Aupa DRINDOTS



### KRISTINA


Azken honetan nik ez dut musika asko entzuten, baina egun batean semeak izugarri guztatu zitzaidan talde bat erakutsi zidan. Ken Zazpi zen, ilargi abestia. Gero arratsalde osoa bere bideoak ikusten pasatzen genuen. Behin eta berriro entzun nahi genuen. Nerabea ematen nuen. Bere musika oso gustuko dut, baina are gehiago letrak.

Últimamente no suelo escuchar mucha música, pero un día mi hijo me mostro un grupo que me gusto mucho. Era Ken Zazpi y la canción Ilargi. Despues pasamos toda la tarde viendo sus videos. Los queríamos escuchar una y otra vez. Parecía una adolescente. Me gusta mucho su música, pero más aún sus letras.

### AINHOA

Gustuko ditudan talde eta bakarlari asko etortzen zaizkit burura. Momentuaren arabera egiten dut aukera, baina izen bat esatekotan "En tol Sarmiento" esango nuke. Nire abesti gustukoena "Ametsetan" da. Behin ikusi dituzuzenean eta haien musikak alaitasun izugarria sentiarazten dit. ETS taldearen abestiak Suitzan, trenean nindoala, entzun nituen lehenengo aldiz.

Me vienen a la cabeza muchos/as solistas y grupos. La verdad mi música favorita va variando según el momento, pero si tengo que decir un grupo: En Tol Sarmiento. Mi canción favorita es Ametsetan. Los he visto una sola vez en directo. Su música me hace sentirme feliz. Las canciones de ETS las escuché por primera vez en Suiza, mientras iba en tren.



## Mugaldekoak

**El grupo Mugaldekoak ha sido el último grupo que nos visitó recientemente el pasado septiembre con su nuevo disco recién sacado del horno. En homenaje a ellos y a otros tantos artistas que han visitado nuestra comarca, aquí tenéis una breve biografía para que los conozcáis un poco mejor.**

### El punto de partida (2004)

El grupo Mugaldekoak (Los fronterizos) nace de un poemario homónimo publicado por la editorial SUSA en 2004, al reunirnos el autor del libro, Edu Zelaieta, y los músicos Beñardo Goietxe y Raul Garcia. La intención inicial es dotar de vida musical a algunos textos seleccionados mediante melodías fronterizas pop-rock, folk, blues y country.

### El primer Cd (2006)

Después de ofrecer unas 35 conciertos-recitales, grabamos el primer trabajo Biziago sentitzeak dakarren muga inguruan

(Merodeando la frontera que supone sentirse más vivo) con la discográfica Gaztelupeko Hotsak. Para dicho trabajo se crean nuevas canciones y textos, como resultado de la evolución experimentada por el grupo. Asimismo, se suman dos personas más al proyecto: Jordi Serra y (el tristemente fallecido) Mikel Errazkin.

### El segundo Cd (2012)

Tras un descanso, emprendemos una nueva etapa que dura alrededor de tres años con cuatro personas implicadas en el proyecto: Raul, Edu, Beñardo y el recién incorporado Mattin Sorzabalbere. En este formato de cuarteto grabamos Begiak lekuko (Los ojos como testigo). A lo largo del último año de este periodo, Joseba Baleztena sustituye a Mattin como cuarto fronterizo.

### La trilogía se completa (2017)

El trío inicial hemos estamos trabajando en un tercer repertorio, a nuestro ritmo



gasteiztarra-bidasotarra-brasileño, con la intención de completar la trilogía de Mugaldekoak. Para ello, no obstante, hemos contado con la ayuda de diferentes

personas: Xavi, Ander, Monika, Morau, Petti, Idoia, Kotte, Begoña, Mathilde, Josevisky, Mikel, Asier, Haritz, Adam, Rita, Daniel, Pierre, Maryse...



**TESTUAK:** Arabako Errioxako IKA

**ARGAZKIAK:** Arabako Errioxako IKA.

**ILUSTRAZIOAK:** Arabako Errioxako IKA.

**Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.**

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

**Oiongo IKA euskaltegia.** Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

**Biasteriko IKA Euskaltegia.** Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikaeuskaltegiak.eus>

[errioxa@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:errioxa@ikaeuskaltegiak.eus)

## zuek ere euskaraz

**Aquí tenéis unas descripciones sobre ciertos animales. Vuestro trabajo es entender los pequeños textos y relacionarlos con las fotografías de dichos animales.**

**Lot itzazue ondoko animalien irudiak eta deskripzioak.**



Gizakiak hazten ditu animalia barregarri hauek. Dezente gizentzen direnean hil egiten dituzte bere haragia jateko. Orojaleak dira eta oso jatunak. Atzeko hankak oso preziatuak dira gizakiarentzat. Hainbat herrialdetan, ordea, debekatuta dute animalia hauek jatea, beren erlijioaren kontrakoa da eta.

**Txerria**

Bernardo Atxaga idazleak animalia hauetaz idatzi zuen olerki famatu batean. Barraskiloak, zomorroak, fruituak eta haziak jaten ditu, batez ere. Atxagak poema horretan esaten duenez, ez ditu gure autoen argiak ezagutzen, eta asko agertzen dira hilak errepedetan.

**Trikua**

Gizakiaren lagunik onena omen da, izan ere, orain urte piloa gizakiarekin ederki moldatu da. Hala ere, batzuetan pertsona askok abandonatu egiten dituzte, batez ere, udan eta Gabonetan. Denetarik jaten dute, baina okela nahiago dute. Herrialde guztietan bizi dira.

**Taxurra**

Lurrean ez bezala, itsasoan oso ondo moldatzen dira. Arrainak jaten dituzte, batez ere. 900 kilo izatera heltzen dira. Eguzkitan egotea izugarri maite du. Ez du etsairik. Etsai bakarria gizakia izan da. XIX. mendean milaka hil zituzten azala, gantza eta haragia lortzeko.

**Itsas elefantea**

Txikia da eta iletsua. Oso beldurtia eta jostaria da, baina jende asko ikaratzen du. Zomorroak eta orotariko haziak jaten ditu. Gizakia ikusten duenean ospa egiten du.

Umeentzako marrazki bizidunetan ugari ikusten dira, eta batzuk oso famatuak.

**Sagua**

	MAILA	LEKUA	ORDUTEGIA
<p><b>Hauek dira ikasturte honetan Arabar Errioxako Euskaltegiak dituen taldeak</b></p> <p><b>Estos son los grupos que este curso se han formado en el Euskaltegi de Rioja Alavesa</b></p>	A0	Logroño	18:45-20:45
	A1/ A2	Oion	09:45-11:45
		Oion	19:00-21:00
	B1	Bastida	09:30-11:30
		Oion	19:00-21:00
	B2	Biasteri	09:00-11:00
		Oion	19:00-21:00
	C1	Biasteri	19:00-21:00
		Oion	19:00-21:00
	GAZTETXOAK (IKASTOLETAN)	Bastida	16:30-18:30
Lapuebla		15:30-17:30	
Oion		16:00-18:00	